 - b) Enplegu publikorako eskaintzan, funtzionarioek bete beharreko plaza betegabeak adieraziko dira, Plazak lan-kategoriaka edo taldeka, kidegoka eta eskalaka sailkatuko dira.
 - c) Plazak betetzeko aukeraketa-probetarako deialdiak egin ahal izango dira, enplegu publikorako eskaintzaren arabera plaza horiek bete beharrekoak ez badira.
 - d) Ez da beharrezkoa izango lan-itunpeko langile finkoen lanpostuak lan eskaintza publikoan sartzea.
54. EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEA: EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO FUNTZIONARIO IZATEARI EZ ZAIO UZTEN HONAKO ARRAZOI HAUETAKO BATENGATIK:
- a) Doakionak idatziz uko eginez.
 - b) Derrigorrezko edo borondatezko erretiroa.
 - c) Funtzionarioetarekin lotutako lanpostuari dagozkion egitekoak betetzeko erabateko ezgaitzea edo ezgaitze berezia dakarren zigorra, epaiz zehaztua.
 - d) Zerbitzutik behin-betiko kentzea ez dakarren diziiplina-zigorra.
55. EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEAREN ARABERA, ORDAINSARI BEREZI BAKOITZAREN ZENBATEKOA HONAKOA IZANGO DA:
- a) Hilabeteko soldata eta hiru urtekoak gehienez.
 - b) Hilabeteko soldata, lan-izendapenagatikako osagarria eta hiru urtekoak gehienez.
 - c) Hilabeteko soldata, lan-izendapenagatikako osagarria, berariazko osagarria eta hiru urtekoak gehienez.
 - d) Hilabeteko soldata eta hiru urtekoak gutxienez.



OIARTZUNGO
UDALA

45. LANPOSTUA GORDETZEA EZ DAKARREN ADMINISTRAZIO-EGOERA BATETIK DATOZEN FUNTZIONARIOEK JARDUNEO ZERBITZURA ITZULI AHAL IZATEKO:
- a) Plazaren bat hutsik egon arte itxaron beharko dute.
 - b) Kidego eta eskala bereko bitarteko funtzionario bat ordezkatu ahal izango dute.
 - c) Hurrengo lekualdatze-lehiaketa egin arte itxaron beharko dute.
 - d) Hurrengo lan-eskaintza publikoko deialdia egin arte itxaron beharko dute.
46. LANGILEEN ESTATUTUAREN 11. ARTIKULUKO PRESTAKUNTZA LAN KONTRATUEN IRAUPENA:
- a) Ezin da izan ez sei hilabetetik beherakoa ez bi urtetik gorakoa.
 - b) Ezin da izan ez bi urtetik beherakoa ez gorakoa.
 - c) Ez du denbora-mugarik.
 - d) Ezin da izan ez hiru hilabetetik beherakoa ez urtebetetik gorakoa.
47. PRAKTIKETAN DABILEN LANGILEAREN ORDAINSARIA:
- a) Lanpostu bera edo baliokidea betetzen duen langile baten ordainsari bera izango da.
 - b) Lanpostu bera edo baliokidea betetzen duen langile baten ordainsariaren erdia izango da.
 - c) Lanbide arteko gutxieneko soldata izango da, nolana ere.
 - d) Ezin da izan lanpostu bera edo baliokidea betetzen duen langile batentzat finkatutako soldataren ehuneko hirurogeitik beherakoa.
48. LANGILE BATEK ERRETIRO PARTZIALA HARTU AHAL IZATEKO, HAU ADOSTU BEHARKO DU BERE ENPRESAREKIN:
- a) Gutxienez %50eko lanaldi- eta soldata-murrizketa.
 - b) Gehienez %50eko lanaldi- eta soldata-murrizketa.
 - c) Lanaldi- eta soldata-murrizketa, gehienekorik eta gutxienekorik gabe.
 - d) Gutxienez %10eko lanaldi- eta soldata-murrizketa.
49. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA:
- a) Afiliatzera behartuta dauden pertsonen eta entitateen eskatuta egiten da beti.
 - b) Interesdunen eskatuta egiten da beti.
 - c) Gizarte Segurantzak ofizioz egiten du beti.
 - d) Aurreko erantzunetan aipatutako hiruetatik edozeinek egin ahal izango du.
50. ETXE BATEN TITULARRAK BERE ETXEBIZITZAN LANAK BESTE BATZUEKIN KONTRATATZEN DITUENEAN:
- a) Egiatzatu beharko du langile bakoitzaren Gizarte Segurantzako afiliazioa eta alta.
 - b) Lanak hastean alta eman beharko dio langile bakoitzari.
 - c) Ez du egiatzatu beharko langile bakoitzaren Gizarte Segurantzako afiliazioa eta alta.
 - d) Etxeko lanen ziurtagiria eskatu beharko dio Gizarte Segurantzari.



OIARTZUNGO
UDALA

37. **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KONTRATUEN ADJUDIKAZIOA LIZITATZEKO IRAGARKIA HEMEN ARGITARATUKO DA:**
- a) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
 - b) Kontratatzailearen profilean.
 - c) Erregulazio harmonizatuko kontratuetan, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean.
 - d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.
38. **KONTRATAZIO-MAHAIA DA:**
- a) Kontratazio-organo bat.
 - b) Laguntza tekniko espezializatuko organo bat.
 - c) Adituen batzorde bat.
 - d) Fiskalizazio ekonomikoko organo bat.
39. **ADIERAZ EZAZU HAUETAKO ZEIN BORONDATEZKO ESZEDENTZIA EZ DAGOEN AURREIKUSIA ADMINISTRAZIO-EGOEREI BURUZKO ARAUDIA ONARTZEN DUEN 339/2001 DEKRETUAN:**
- a) Norberaren kontuetarako.
 - b) Familia bateratu ahal izateko.
 - c) Arlo publikoan zerbitzuak emateko.
 - d) Kargu hautetsia betetzeko.
40. **NORBERAREN KONTUETARAKO ESZEDENTZIA HARTZEKO, NAHITAEZKOA IZANGO DA ARLO PUBLIKOAN BENETAKO ZERBITZUAK ETENGABE EMAN IZANA:**
- a) Eskaria egin aurreko bost urteetan.
 - b) Bost urtetan guztira, eta ez da beharrezkoa izango horiek kontsekutiboak eta eskaria egin aurrekoak izatea.
 - c) Eskaria egin aurreko lau urteetan.
 - d) Ez dago benetako zerbitzuen gutxieneko aldirik eszedentzia hori eskatzeko.
41. **NORBERAREN KONTUETARAKO BORONDATEZKO ESZEDENTZIAN DAGOEN BITARTEAN FUNTZIONARIOAK 65 URTE BETETZEN BADITU ETA JARDUNEKO ZERBITZURA ITZULTZEKO ESKARIA EGIN EZ BADU:**
- a) Berehala itzuli beharko da jarduneko zerbitzura eszedentzian egon den denbora betetzera.
 - b) Kotizazioa kenduko zaio borondatezko eszedentzian egon den denboratik.
 - c) Ofizios aitortuko zaio nahitaezko erretiroa.
 - d) Hiru hilabetez aukera emango zaio jarduneko zerbitzura urtebetez itzultzeko.
42. **FUNTZIONARIOEK SEME EDO ALABA BAKOITZA ZAINTEZKO HAR DEZAKETEN ESZEDENTZIA-ALDIA HONAKOA DA:**
- a) Hiru urte gutxienez.
 - b) Urtebete gutxienez.
 - c) Hiru urte gehienez.
 - d) Bi urte gehienez.
43. **FUNTZIONARIOAK SEME EDO ALABA BAKOITZA ZAINTEZKO HARTU DUEN ESZEDENTZIAREN ONDOREN JARDUNEKO ZERBITZURA ITZULTZEKO ESKARIA EGITEN EZ BADU FINKATUTAKO EPEAN ETA NORBERE KONTUETARAKO BORONDATEZKO ESZEDENTZIAN JARTZEKO ESKAKIZUNA BETETZEN EZ BADU:**
- a) Destinoaren zain geldituko da.
 - b) Lan-poltsatara igaroko da.
 - c) Zerbitzu berezietako egoeran geratuko da.
 - d) Funtzionario-izaera galduko du.
44. **JARDUNEKO ZERBITZURA ITZULTZEKO EBAZPENEAN EZARRITAKO EGUNEAN LANPOSTUAZ JABETU EZ, ETA JUSTIFIKATUTAKO ARRAZOIRIK EZ BADAGO, INTERESDUNA:**
- a) Funtzionario-izaera galduko du, nolanahi ere.
 - b) Norbere kontuetarako borondatezko eszedentziara pasatuko da, horretarako eskakizunak betetzen baditu.
 - c) Destinoaren zain geldituko da.
 - d) Lan-poltsatara igaroko da.

30. KONTRATUAREN XEDEA:

- a) Kontratazio-organoak aukera izango du kontratuaren xedea sortaka zatitzeko, baldin eta hori justifikatzen badu.
- b) Kontratazio-organoak aukera izango du kontratuaren objektua sortaka ez zatitzeko horretarako arrazoi egokiak daudenean -espedientean behar bezala zehaztu beharko dira horiek-, salbu eta obra-emakidako kontratuetan.
- c) Kontratazio-organoak aukera izango du kontratuaren xedea sortaka zatitzeko, sorta muga batekin, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.
- b) Kontratazio-organoak aukera izango du kontratuaren objektua sortaka ez zatitzeko horretarako arrazoi egokiak daudenean -ez da beharrezkoa izango horiek espedientean behar bezala zehaztea-.

31. KONTRATUEN BALIO ZENBATETSIA HONELA ZEHAZTUKO DA: (101.1.A ETA 101.2. ARTIKULUAK)

- a) Obren, horniduren eta zerbitzuen kontratuen kasuan, kontratazio-organoak bere zenbatespenen arabera ordaintzekoa den zenbateko osoa hartuko du, balio erantsiaren gaineko zerga sartuta.
- b) Obren, horniduren eta zerbitzuen kontratuen kasuan, kontratazio-organoak bere zenbatespenen arabera ordaintzekoa den zenbateko osoa hartuko du, balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe.
- c) Obren, horniduren eta zerbitzuen kontratuen kasuan, kontratazio-organoak bere zenbatespenen arabera ordaintzekoa den zenbateko osoa hartuko du, jarduera ekonomikoen gaineko zerga sartuta.
- d) Obren, horniduren eta zerbitzuen kontratuen kasuan, kontratazio-organoak bere zenbatespenen arabera ordaintzekoa den zenbateko osoa hartuko du, jarduera ekonomikoen gaineko zerga sartu gabe.

32. KLAUSULEN ETA PRESKRIPZIOEN AGIRIEZ GAIN, HAUETAKO ZEIN DOKUMENTU GEHITU BEHAR ZAIO KONTRATAZIO-ESPEDIENTEARI? .

- a) Kreditua badagoela egiaztatzeko ziurtagiria.
- b) Justifikatzeko memoria.
- c) Gastuaren onespina.
- d) Aurreko guztiak.

33. KONTRATU TXIKIAK DIRA:

- a) 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak, baldin eta obra-kontratuak badira.
- b) 50.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak, baldin eta obra-kontratuak badira.
- c) 10.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak, baldin eta zerbitzu-kontratuak badira.
- d) 18.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak, baldin eta zerbitzu-kontratuak badira.

34. ONDORENGO ZEIN EZ DA KONTRATAZIO-IZAPIDETZE MOTA BAT?

- a) Aurretikoa.
- b) Larrialdikoa.
- c) Presakoa.
- d) Arrunta.

35. KONTRATU TXIKIAK ADJUDIKATU AHAL IZANGO DIRA:

- a) Prozedura irekia erabiliz.
- b) Zuzenean; jarduteko gaitasuna eta prestazioa gauzatzeko beharrezko den lanbide-gaikuntza dituen edozein enpresabururi adjudikatu ahal izango zaizkio, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 118. artikuluan ezarritako baldintzak betez betiere.
- c) Lehia-elkarrizketara joaz.
- d) Prozedura negoziatua erabiliz.

36. NORMALEAN, PROZEDURA HAU ERABILIZ ADJUDIKATUKO DIRA KONTRATUAK SEKTORE PUBLIKOAN:

- a) Irekia eta murriztua.
- b) Irekia eta lehia-elkarrizketa.
- c) Murriztua edo negoziatua.
- d) Irekia edo murriztua.



OIARTZUNGO
UDALA

23. **OBRA-KONTRATUAK DIRA HONAKO HELBURU HAUETAKOREN BAT DUTENAK:**
- a) Obra bat egitea, bereizirik edo proiektuaren idazketarekin batera, edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen I. Eranskinean aipatutako lanetatik bakarren bat egitea.
 - b) Sektore publikoko erakunde kontratatzaile batek finkatutako baldintzak betetzen dituen obra bat egitea, edozein bidez, baldin eta obra horrek eragin erabakigarria badu obraren motan edo proiektuan.
 - c) Administrazio Publikoan eta Pribatuan egiten diren obra guztiak, horien mota edozein dela ere.
 - d) a eta b erantzunak zuzenak dira.
24. **JARDUERA BAT GARATUZ PRESTAZIOAK EMATEA EDO OBRAZ EDO HORNIDURAZ BESTELAKO EMAITZA BAT LORTZERA BIDERATUTAKO PRESTAZIOAK EMATEA XEDE DUENA DA:**
- a) Zerbitzu-kontratua.
 - b) Kontratu mistoa.
 - c) Sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzakontratua.
 - d) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua.
25. **9/2017 LEGEAK, AZAROAREN 8KOAK, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUENAK KONTRATU HAU SORTU DU:**
- a) Zerbitzu-emakidako kontratua.
 - b) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua.
 - c) Zerbitzu publikoak zeharka kudeatzeko kontratua.
 - d) Zerbitzu publikoak zuzenean kudeatzeko kontratua.
26. **BALDINTZA-AGIRIEN ARABERA KONTRATUAREN JARRAIPENA EGITEAZ ETA HAREN EGIKARITZE ARRUNTAN ARDURATZEN DEN UNITATEA ZEIN ERE DEN, KONTRATAZIO-ORGANOEK PERTSONA HAU IZENDATU BEHARKO DUTE:**
- a) Esleipenaren ordezkari bat.
 - b) Esleipenaren arduradun bat.
 - c) Kontratuaren arduradun bat.
 - d) Kontratuaren ordezkari bat.
27. **KONTRATATZAILE-PROFILEAN ARGITARATU BEHARKO DIRA HAUEK ERE:**
- a) Deuseztaturiko prozedurak.
 - b) Kontratazio-organoei laguntzen dieten kontratazio-mahaien osaera.
 - c) Balio-judizio baten araberakoak diren adjudikazio-irizpideak aplikatzeko adituen batzordeetako edo erakunde tekniko espezializatuak diren kideen hautaketa, horiek beharrezkoak diren prozeduretan.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
28. **SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEAREN PRINTZIBIOEN ARTEAN EZ DAGO:**
- a) Lizitazioetan parte hartzeko askatasuna.
 - b) Prozeduren gardentasuna eta publikotasuna.
 - c) Lehiakideen arteko diskriminaziorik eza eta tratu-berdintasuna.
 - d) Konpetentzia hobetzea.
29. **KONTRATU TXIKIEI BURUZKO INFORMAZIOA MAITZASUN HONEKIN ARGITARATU BEHARKO DA:**
- a) Gutxienez ere hiru hilean behin.
 - b) Gutxienez ere lau hilean behin.
 - c) Gutxienez ere urtean behin.
 - d) Gutxienez ere sei hilean behin.

17. ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEAREN TESTU BATEGINA: ENPLEGATU PUBLIKOEN JOKABIDE-KODEAREN PRINTZPIO ETIKOEI ETA JOKABIDE-PRINTZPIOEI DAGOKIENEZ, ADIERAZ EZAZU AUKERA ZUZENA:
- a) Printzipio etiko bat da herritarrari berak eskatutako hizkuntzan erantzungo zaiola bermatzea, hizkuntza hori lurralde horretan koofiziala bada.
 - b) Printzipio etiko bat da beren nagusien jakinaren gainean jartzea zerbitzuan diharduteneko unitatearen eginkizunak hobeto betetzeko beren ustez egoki diren proposamenak.
 - c) Printzipio etiko bat da enplegatu publikoen jokabideak oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen errespetua oinarri izatea.
 - d) Aurreko hiru aukeretatik bakar bat ere ez da zuzena.
18. ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEAREN TESTU BATEGINA: FALTA ETA ZEHAPENEN PRESKRIPZIOA
- a) Arau-hauste oso larriak sei urteren buruan preskribatuko dira; larriak bi urteren buruan; eta arinak, berriz, hilabete pasata.
 - b) Arau-hauste oso larriak hiru urteren buruan preskribatuko dira; larriak bi urteren buruan; eta arinak, berriz, sei hilabete pasata.
 - c) Falta oso larriengatik ezarritako zehapenak sei urteren buruan preskribatuko dira; falta larriengatik ezarritakoak bi urteren buruan; eta falta arinengatik ezarritakoak, berriz, urtebete igarota.
 - d) Aurreko aukera guztiak okerrak dira.
19. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZERBITZUKO LANGILEEN BATERAEZINTASUNEI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, JARDUERATZAT HARTUKO DA SEKTORE PUBLIKOAN:
- a) Autonomia Erkidegoetako Legebiltzarretako eta Toki-korporazioetako hautazko kideek garatutakoa.
 - b) Justizia Administrazioetako langileek garatutakoa.
 - c) Gizarte Segurantzako itunpeko erakundeetako langileek osasun-prestazioan garatutakoa.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
20. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZERBITZUKO LANGILEEN BATERAEZINTASUNEI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, BATERAGARRIA AL DA BIGARREN LANPOSTU BAT SEKTORE PUBLIKOAN UNIBERTSITATEKO IRAKASLE GISA?
- a) Inola ere ez.
 - b) Bai.
 - c) Bai, baldin eta irakasle elkartua bada eta bere arduraldiak ez badu lanaldi partzialekoa gainditzen.
 - d) Beti.
21. EUSKAL HERRIKO POLIZIARI BURUZKO LEGEA. ADIERAZI ERANTZUN OKERRA:
- a) Bost mila biztanle edo gehiago duten Euskal Herriko udalerriek beren Polizia Kidegoak izan beharko dituzte.
 - b) Bost mila biztanle baino gutxiago duten udalerriek Polizia Kidegoak sortzeko, Eusko Jaurlaritzak baimena eman beharko du aurretik.
 - c) Bost mila biztanle baino gutxiago duten udalerriek, salbuespen gisa, beren Polizia Kidegoak sor ditzakete, zalantzarik gabe premiazkoak edo egokiak direnean.
 - d) Udaltzaingoek ezin kasutan ere ez dute izango antolakunde eta jardute-menpekotasunik Eusko Jaurlaritzarekiko edo Euskal Autonomia Elkartekeko Administrazioarekiko.
22. EUSKAL HERRIKO POLIZIARI BURUZKO LEGEA. ADIERAZI ERANTZUN OKERRA:
- a) Polizia Kidegorik ez duten udalerrietan, horrelako Kidegoei dagozkien zereginak zaindari, jagole, aguazil edo beste izenez ondasunak, zerbitzuak eta instalakuntzak babesten eta jagoten dituzten toki-erakundeko langileek burutuko dituzte.
 - b) Polizia Kidegorik ez duten toki-erakundeek Ertzaintzaren laguntza eskatu ahal izango diote Herrizaingo Sailari Udaltzaingoenak diren polizia zereginetan.
 - c) Polizia Kidegorik ez duten toki-erakundeek Ertzaintzaren laguntza eskatu ahal izango diote Herrizaingo Sailari herritik barrenako bideetan trafikoa antolatzeko eta zuzentzeko.
 - d) Udaltzaingorik ez duten toki-erakundeek, edo izanik ere, aginpidean dauzkaten zerbitzu guztietarako nahiko biderik ez badute, Ertzaintzaren lankidetzara iraukorra eskatu ahal izango dute.



OIARTZUNGO
UDALA

12. ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEAREN TESTU BATEGINA: AUKERA EZAZU ERANTZUN ZUZENA: ENPLEGATU PUBLIKOEN TALDEAN BALIATZEN EZ DIREN ESKUBIDE INDIVIDUAL HAUEK DITUZTE:
- a) Lanbide-karreraren aurrera egiteko, dena delako administrazio publikoaren defentsa juridikoa eta babesa jasotzeko eta greba egiteko eskubidea.
 - b) Mugiezintasunerako, adierazpen-askatasuna izateko eta askatasun sindikala izateko eskubidea.
 - c) Lanean, osasunari eta segurtasunari dagokienez, babes eraginkorra jasotzeko eta lanbide-elkarteetara askatasunez biltzeko eskubidea.
 - d) Etengabeko prestakuntza izateko, biltzeko eta lanean diharduen atalari esleitutako helburuak lortzeko lanetan parte hartzeko eskubidea.
13. ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEAREN TESTU BATEGINAREN ARABERA, LANALDIA:
- a) Denbora osoz bete beharko da edo, salbuespenez, denbora-zatiz.
 - b) Denbora osoz beteko da beti eta, salbuespenez, denbora-zatiz.
 - c) Araudiaren arabera ezartzen dena beteko da.
 - d) Denbora osoz edo denbora-zatiz bete daiteke.
14. ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEAREN TESTU BATEGINAREN ARABERA, FUNTZIONARIOEK ESKUBIDEA IZANGO DUTE:
- a) Hiru egun balioduneko baimena izateko lehen mailako odolkidetasunera arteko senide baten heriotzagatik, istripuagatik edo gaixotasun larriagatik, eta bost egun baliodunekoa gertaera beste herri batean gertatuz gero.
 - b) Bi egun balioduneko baimena izateko hirugarren mailako odolkidetasunera arteko senide baten heriotzagatik, istripuagatik edo gaixotasun larriagatik, eta lau egun baliodunekoa gertaera beste herri batean gertatuz gero.
 - c) a) eta b) kasuetan, gertaera funtzionarioaren ohiko bizilekutik 150 kilometro baino urrunago gertatzen denean, baimena bi egun baliodun gehiago luzatu ahal izango da.
 - d) Aurreko guztiak zuzenak dira.
15. ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEAREN TESTU BATEGINAREN ARABERA, LANGILE LAN-KONTRATUDUNEN LANALDIA ARAUTZEKO ARAUBIDEARI DAGOKIONEZ, LEGE HONETAN/HAUETAN EZARRITAKOIA HARTUKO DA AINTZAKOTZAT:
- a) Soilik lan-legerian ezarritakoa.
 - b) Soilik Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legean ezarritakoa.
 - c) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legean eta dagokion lan-legerian ezarritakoa.
 - d) Aurreko guztiak okerrak dira.
16. ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEAREN TESTU BATEGINAREN ARABERA, UMEA GARAIA BAINO LEHEN JAIO DEN KASUAN, FUNTZIONARIOEK ESKUBIDEA IZANGO DUTE:
- a) Gehienez lanaldiaren herena lanetik kanpo egoteko, lansari osoa jasoz.
 - b) Bi ordu eta lanaldiaren erdia bitartean lanetik kanpo egoteko, lansari osoa jasoz.
 - c) Lanaldia gehienez ere bi orduz laburtzeko, lansaria ere neurri berean murriztuta.
 - d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

6. EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEA: PRAKTIKETA DABILTZAN FUNTZIONARIOEK:

- a) Egoera horretan dauden bitartean, nolana ere, tituludun Taldearen oinarrizko lansariak jasoko dituzte eta Talde horri emandako lan-izendapenagatikako osagarriaren gutxieneko mailaren baliokidea izango dute.
- b) Egoera horretan dauden bitartean, nolana ere, tituludun Taldearen oinarrizko lansariak jasoko dituzte eta Talde horri emandako lan-izendapenagatikako osagarriaren eta berariazko osagarriaren gutxieneko mailaren baliokidea izango dute.
- c) Egoera horretan dauden bitartean, nolana ere, lanpostuari dagokion tituludun Taldearen oinarrizko lansariak jasoko dituzte.
- d) Aurreko aukera guztiak okerrak dira.

7. ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEAREN TESTU BATEGINA:

- a) Enplegatu publikoak dira administrazio publikoetan zeregin ordainduak betetzen dituztenak, interes orokorren zerbitzura.
- b) Enplegatu publikoak dira administrazio publikoetan zeregin ordainduak eta egonkorak betetzen dituztenak.
- c) Enplegatu publikoak dira administrazio publikoetan aldizka ordaindutako ohiko zereginak betetzen dituztenak.
- d) Aurreko aukeretatik bakar bat ere ez da zuzena.

8. ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEAREN TESTU BATEGINA: HONELA SAILKATZEN DIRA LANGILE PUBLIKOAK:

- a) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, langile lan-kontratudunak eta zuzendaritzako langile profesionalak.
- b) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, langile lan-kontratudunak, behin-behineko langileak eta zuzendaritzako langileak.
- c) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak eta behin-behineko langileak.
- d) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, langile lan-kontratudunak (finkoak, mugagabeak nahiz aldi batekoak izan) eta behin-behineko langileak.

9. ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEAREN TESTU BATEGINA: BITARTEKO FUNTZIONARIOAK KARGUTIK KENDUKO DIRA:

- a) Bere izendapena eragin zuen arrazoia indarrrik gabe geratutakoan.
- b) Nazionalitatea galtzeagatik.
- c) Izendatu zuen organoak agindutako kargugabetzeagatik.
- d) a) eta b) zuzenak dira.

10. ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEAREN TESTU BATEGINA: BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK KARGUTIK KENDUKO DIRA:

- a) Nolanahi ere, izendatu zuen agintaria kargutik kentzen denean.
- b) Nolanahi ere, konfiantzazko edo aholkularitzako eginkizuna betetzeko izendatu dituen agintariak kargutik kentzen denean, harekin lotutako mota horretako langileak ere kargutik kenduko dira.
- c) Izendatu zuen agintariak horrela erabakitzen duenean soilik.
- d) Aurreko aukera guztiak zuzenak dira.

11. ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEAREN TESTU BATEGINA: ONDORENGO AUKERETATIK ZEIN EZ DA ZUZENA:

- a) Behin-behineko langilea izateak ez du merezimendurik ekarriko funtzio publikora iritsi behar denean.
- b) Behin-behineko langileei karrerako funtzionarioen araubide orokorra aplikatuko zaie, beren izaeraren ezaugarriak aintzat hartuta egoki denean.
- c) Behin-behineko langileei ez zaie aplikatuko karrerako funtzionarioen araubide orokorra.
- d) Behin-behineko langilea izateak ez du merezimendurik ekarriko barne-sustapena egin behar denean.



OIARTZUNGO
UDALA

GALDERAK

1. **EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEA: HAUETAKO ZEIN ERANTZUN EZ DA ZUZENA:**
 - a) Lanpostu-zerrenden bidez, euskal Administrazio Publikoek beren pertsonal-beharrak finkatzen dituzte.
 - b) Lanpostu-zerrendek funtzionarioentzat, lan-itunpeko langile guztientzat eta behin-behineko langileentzat gordeta dauden aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu beharko dituzte.
 - c) Funtzionarioentzat gordetako lanpostuetan beste Administrazio Publikoetako funtzionarioek lor ditzaketen lanpostuak horiek betetzeko doakion sistemaz finkatuko dira.
 - d) Lanpostu-zerrenden bidez, euskal Administrazio Publikoek lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztu eta horietako bakoitza sailkatzen dute.

2. **EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEA: FUNTZIONARIOEK IZENDATUA DUTEN BERARIAZKO OSAGARRIA HEMEN ADIERAZI BEHARKO DA:**
 - a) Lanpostuen Zerrendan.
 - b) Aurrekontu Zerrendan.
 - c) Bietan, a)-n eta b)-n.
 - d) Ez batan ez bestean, ez a)-n ez b)-n.

3. **EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEA: LANPOSTUEN ZERRENDAK:**
 - a) Besteak beste, honako hauek adierazi beharko dituzte nahitaez horietako bakoitzeko: izena, hizkuntza-eskakizuna eta horrek indarra galtzen dueneko eguna, edo lan-izendapenagatikako osagarria.
 - b) Lanpostuak Talde bati baino gehiagori aukeran eman ahal izango zaizkie, beti ere horien maila-arteakoa sartutakoak balira behintzat.
 - c) Izendatuta duten produktibitate-osagarria adierazi beharko da nahitaez.
 - d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

4. **EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEA: LANPOSTUEN ZERRENDAK:**
 - a) Lanpostuen zerrendak eta horietan izan daitezkeen aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira; eta Foru Diputazioetakoak edo Udaltzarretakoak direnean, baita Lurralde Historikokoan.
 - b) Lanpostuen zerrendak eta horietan izan daitezkeen aldaketak dagokion Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.
 - c) Lanpostuen zerrendak eta horietan izan daitezkeen aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira; edota Foru Diputazioetakoak edo Udaltzarretakoak direnean, Lurralde Historikokoan.
 - d) Lanpostuen zerrenden aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian soilik argitaratuko dira.

5. **EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEA: ADIERAZI ERANTZUN OKERRA:** Lan-itunpeko langile finkoentzat honako hauek bakarrik gorde ahal izango dira:
 - a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko ez diren irakaskuntza- edo gaikuntza-zentroei atxikitako irakaskuntza-lanpostuak.
 - b) Administrazio- edo laguntza-egitekoak dituzten atzerriko lanpostuak.
 - c) Duten iaera edo atxikita daudeneko organo edo banakoek bete dezaten zerbitzuaren zer-nolakoak kontutan izanik, Eusko Legebiltzarraren legez finka daitezen lanpostuak.
 - d) Kudeaketako organo bereziei, foru eta tokiko Erakunde Burujabeei eta Autonomia Erkidegoko Administrazioaren merkataritzako Erakunde Burujabeei atxikitako lanpostuak, menpeko direneko Administrazioaren aldetiko agintaritza-jarduketa dakartenak.



LEHIAKETA-OPOSAKETA SISTEMAREN BIDEZ LAU ADMINISTRARI PLAZA BETETZEKO HAUTAKETA- PROZESUA

KONTRATAZIO ETA PERTSONALEKO ADMINISTRARI PLAZA

BIGARREN ARIKETA

2019 / 03 / 15